

Izotza ez denean nahikoa hotz

Lanean hasi berria nintzen eta kide batek Zirkulu Polarrean egindako oporraldia-
ren berri eman zidan. Harrigarrien egin
zitzaiena, antza, gaurik gabeko egun
etengabea eta gauerdiko eguzkiak jen-
dearen portaeran daukan eragina izan zen.
Kalean ahalik eta ordu gehien emateko joera
izaten dute, erlojuak markatzen duen ordua-
rekin zerikusirik ez dituzten jarduerak buru-
tuz, halako argia eta berotasun beharra eta
nahia sentitzen baitute, barruan duten bizi
gogoa ateratzeko. Zer izango ote da txanpo-
naren bestaldea: gau luzeak eta itxiak dena
umeltzen eta izozten duela ikustean? Amo-
rrua, sumendia, onarpena, lurperatzea...

Aurtengo Donostiako Zinemaldian Esku-
dinabia aldeko parajeetan egindako film berrien
erakustaldi ederra eskainiko zaigu.
Han oso ezagunak eta sarituak izan
direnak, eta hemengo inguruetan
behin ere erakutsi ez direnak, denak
batera gainera. Oso interesgarri
egingo zaigu egutegia aldrebestuta
eta eguraldiaren nahietara bizi diren
gizaki europarrak ikustea, eta hala-
ber, euren izaera diferenteak modu
poetikoan ezagutzea. Fotogramen
azpian dagoena begiratzen saiatzen
bagara behintzat.

Interesgarria da azpimarratzea 38
film hauek komunean dituzten eza-
garriak, ziur aski Dogma 95 izeneko
zine mugimenduak ezarritako arau-
tegiara hurbiltzen direlako, eta honek
filmei —dramak, komediak zein bes-
telako generoak izan— bizitza errealearen berniza
ematen dizkie, dokumentalaren zigilua oso
garbi dutelarik. Batzuetan kamara sorbalda gai-
nean filmatuta daudelako eta honek eszenan
bertaratzen gaitu,
edota soinua



INIGO AZKONA

zuzen-zuzenean hartuta dagoelako, bere akats
natural eta samurrekin. Iparraldeko zuzendari
hauetako gehienek interesa egunerokoan dela
ematen du, dena delakoa izanda ere pertsonaiak
eta hauen egin beharrekoak, beti hurbiltzen dira
haien eguneroko bizimodua ezagutzera eta
bidebatez guri kontatzera. Ikuslea kuxkuxero
sentituko da askotan pantailan agertzen diren
gu bezain benetako pertsonen sekretuak ezagu-
tuko dituelako, ez kontatu dizkiotelako, baizik
eta ikusi egin dituelako, eta bere sekretuen pare
onartuko ditu, oso antzekoak direlako, oso
benetakoak.

Arestian esandakoa: zine honen ezaugarri
argia izanda ere, ez da gutxiago filmen erritmo-
aren kontua. Kritikek, gehienetan, esan ohi
dute lan lentoak edo motelak direla, apal, lauak.

Haatik, kontuan hartu behar dugu
pertsonaien sentimenduen eta sentsa-
zioen transmisioa ez dela esandakoa-
ren bitartez helarazten, euren joan
etorrien bitartez baizik, aurpegien
keinuez eta bizkar hezurren jarreraz,
eta beraz, denbora apur bat behar iza-
ten dugu hori guztia deskodifikatze-
ko. Honi gehitzen badiogu film gehie-
netan paisaia bera guztia besarkatzen
duen beste pertsonaia bezala trata-
tzen dela —baten edo bestearen egoe-
ra animikoa kontatzeko lanabes zuzen-
a delako—, bada, honen
deskribapenerako *travelling* horizontal
motelak ere maiz erabiltzen dira. Zine
honen zaleak garenok ados gaude kri-
tika hauekin guztiekin, alabaina,
motelte honek filmeari intentsitatea gehitzen
diola pentsatzen dugu, eta ez alderantziz, mun-
duko beste zine mota askotan bezala.

Sobriedadea edota soiltasuna litzateke
gehienez bat zine europar peto honek mereziko
lukeen adjektiboa, gidoiaren ertzetan askotan
istrionismoaren eta anabasaren pintzelkadak
azaltzean, aktoreak izaten baitira sentimendu
gordinen eramaileak, noiz lehertuko beldur
itxaroten dugun sumendi apalen agertzaileak.
Hortxe datza nire ustez haien kulturak eta bizi-
moduak utzitako aztarna, negu luzetan eta ilu-
netan landu behar izan duten kontentzioa, kan-
poan dena geldituta eta izoztuta dagoen
bitartean bihotzaren barruan bizitzaren
burrumbada segitzen duen horiena. ■

« Sobriedadea litzateke zine europar peto
honek mereziko lukeen adjektiboa,
aktoreak izaten baitira sentimendu
gordinen eramaileak, noiz
lehertuko beldur itxaroten dugun
sumendi apalen agertzaileak »

